


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2011KO AZAROA

Euskal AEko industri jarduera % 3,8 hazi zen 2011ko azaroan

Aurreko hilabetearekin, 2011ko urriarekin, alderatuta Euskal AEko industri produkzioa % 0,8 jaitsi zen

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa 2010eko azaroaren aldean % 3,8 hazi zen 2011ko azaroan. Aurreko hilabetearen, hau da, 2011ko urriaren aldean Euskal AEko industri produkzioa % 0,8 jaitsi zen, baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

1. grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2011ko azaroko indizearen eta 2010eko azaroko indizearen bilakaeren artean aldeak eman ziren sektore guztietan: ekipamenduko ondasunak % 6,0 igo ziren, tarteko ondasunak % 3,6 jaitsi ziren eta kontsumo-ondasun guztiak % 11,5 jaitsi ziren, batez ere kontsumo-ondasun ez iraunkorrek (%12,3) eta kontsumo-ondasun iraunkorrek (% 8,3) behera egin zutelako. Energiak % 20,0 egin zuen behera.

2011ko azaroko hilabete arteko aldakuntzak (2011ko urriaren aldean) ikur ezberdina izan du industriako sektore nagusietan. Tarteko ondasunak % 1,3 igo ziren, baina ekipamenduko ondasunak % 0,1 jaitsi ziren eta energia % 6,8 jaitsi zen. Kontsumo-ondasun guztiek % 4,0 egin zuten behera, kontsumo-ondasun ez iraunkorrek % 5,5 jaitsi arren kontsumo-ondasun iraunkorrek % 2,5 egin zutelako gora.

2011ko azaroan (aurreko urteko hilabete beraren aldean) hazkunderik handienak izan zituzten sektore nagusiak *garraio materiala* eta *makineria eta ekipoa* izan ziren, % 13,2 eta % 10,8ko tasekin hurrenez hurren, baita *kautxua* eta *plastikoa* sektorea ere (% 1,9).

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-6,1
09 - Kautxua eta plastikoak	1,9
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-13,5
13 - Makineria eta tresneria	13,2
14 - Garraio-materiala	10,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-7,3
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-7,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	0,8

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Bestalde, *energia elektrikoa, gasa eta lurrina* sektoreak % 13,5 egin zuen behera, *elikagaien, edarien eta tabakoaren industriek* % 7,5 egin zuten behera eta *zurak, paperak eta arte grafikoek* urte batetik bestera % 7,3 egin zuten behera.

Lurralde historikoka, urte batetik besterako azaroko Industri Produkzioko Indizea positiboa izan zen Gipuzkoan (% 0,3ko hazkundea) baina Bizkaian % 9,9 jaitsi zen eta Araban % 0,2 jaitsi zen. Hilabete batetik besterako hazkunde-tasa, 2011ko urriarekin alderatuta betiere, negatiboa izan zen Bizkaian (% 2,9) eta Araban (% 0,4); alabaina, Gipuzkoan % 0,9 egin zuen gora tasa horrek.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2011 azaroa (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2011aza / 2010aza	M(2011aza) / M(2010aza)*	2011aza / 2011urr	2011urr / 2011ira
Indize orokorra				
Euskal AE	-3,8	2,4	-0,8	-1,1
Araba/Álava	-0,2	5,7	-0,4	-0,2
Bizkaia	-9,9	-0,4	-2,9	-2,0
Gipuzkoa	0,3	3,4	0,9	-0,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-11,5	-2,4	-4,0	-2,3
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,3	-8,9	2,5	-3,5
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-12,3	-0,5	-5,5	-2,0
Ekipo-ondasunak	6,0	6,3	-0,1	0,4
Bitarteko ondasunak	-3,6	3,8	1,3	0,1
Energia	-20,0	-6,9	-6,8	-0,8

(*) 2011ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2010eko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Argibide gehiago eskuratzeko:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua